



## INGURUMEN IRIZPIDEAK EROSKETAN TXERTATZEKO LABURPEN-FITXA:

### MATERIAL XURGATZAILEA

Argitalpen-data: 2014

## EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA


Landutako dokumentua, ingurumen irizpideak erakunde pribatu eta publikoen erosketa eta kontratazioetan txertatzeko erraztasuna eta zabalkuntza sustatzen duten dokumentu bilduma baten barne hartzen da.

Eskuliburu honen bidez, argibide argiak eta praktikoak eman nahi dira, erosketa eta kontratazio publiko berdearekin lotutako helburu guztiak ahalik eta modu errazenean eta pausoz pauso landu ahal izateko. Horrez gain, ingurumenean eragin txikiagoa duten produktu edo zerbitzuak identifikatzen dituzten etiketa nagusiak berrikusten dira. Azkenik, erosketa eta kontratazio prozesuko une bakoitzerako jarraibideak ezartzen dira, prozesua modu arrakastatsuan bukatu dadin.

**EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA** Eusko Jaurlaritzak, Ihobe-Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren bitartez, burututako laguntza-tresna garrantzitsuena da.

Eskuliburu honek, administrazio publikoko zail guztietan erosketa eta kontratazio publiko berdea zabaltzeko beharrezkoa den informazioa eskaintzen du.

Argitalpenaren testu osoa eskuragarri dago [www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus) webgunean.





## GURE ERABAKIA:

### INGURUMENA GEHIAGO ERRESPETATZEN DUEN OSASUN-MATERIALA EROSTEA

Ospitaleek, osasun-zentroek, haurtzaindegiek edo zentro geriatrikoek egunero erabiltzen dute horrelako osasun-material xurgatzailea:

- Osasun-eskuzapi eta -konpresak.
- Eginkari- edo gernu-inkontinentziarako pixoihalak, biltzaileak eta aposituak.
- Babesgarri xurgatzaileak (aulki, ohatila, ohe eta abarrerako).

Zehazki, laburpen-fitxa honetan material-mota horretan jarri dugu arreta, eta alde batera utzi ditugu beste zenbait osasun-produktu (gasa xurgatzaileak, kotoiak eta antzeko beste batzuk), nahiz eta ingurumen-irizpide gehienek produktu horientzat ere balio duten.

Horrez gain, osasun-material xurgatzaileen artean bereizketa hau egingo dugu:

- Erabili eta botatzeko materialak.
- Material berrerabilgarriak.

Bi mota horiek hartuko ditugu kontuan; izan ere, bizi-zikloaren azterketa eta eragina ez baitira erabakigarriak: emaitzak aldatu egiten dira aztertzen diren eszenatokien arabera eta material berrerabilgarriak garbitzeko prozesuan kontsumitzen diren baliabideen arabera.

Testuinguru horretan, zer ondorio ditu eta nola bete dezakegu ingurumena gehiago errespetatzen duen bulego-materiala erosteko erabakia? Ikus ditzagun kontuan hartu beharreko oinarritzko kontzeptu batzuk, ingurumen-irizpide batzuk eta beste datu erabilgarri batzuk.

## ZER JAKIN BEHAR DUGUN

Osasun-material xurgatzailearekin lotutako ingurumen-inpaktuak gutxitzeko, funtsezko zenbait kontzeptu eta ideia ezagutu behar dira:

### Zenbait kontzeptu nagusi

#### **Osasun-material xurgatzailearekin loturiko zein ingurumen- eta teknika-alderdi eduki behar dira kontuan?**

1. Erabili eta botatzeko produktuetan zelulosa eta zelulosatik eratorritako produktuak erabiltzea material xurgatzaile gisa. Zelulosa zuretik dator, eta, beraz, sortzen duen inpaktua paper-orea fabrikatzeko prozesuekin, zuritze-motarekin eta azken akaberekin lotuta dago.
2. Kotoia eta beste zuntz begetal batzuk erabiltzea produktu berrerabilgarrien material xurgatzaile gisa. Zuntz begetalen inpaktua begetal horien hazkuntzarekin eta ehun-zuntz bihurtzeko prozesuarekin lotuta dago.
3. Kanpo-geruza iragazgaitzean eta barne-geruza iragazlean polimeroak eta substantzia plastikoak egotea. Substantzia horien inpaktuak substantziak produzitzeko behar den petrolioaren erauzketarekin eta fabrikazio-prozesuan erabiltzen diren substantzia arriskutsuekin lotuta daude.
4. Xurgatzaileetako beste substantzia batzuk erabiltzea, esaterako: xurgapen-gaitasun handiko substantziak, usaina kentzeko substantziak, parfumeak, azalerako lozioak, itsasgarriak, velcroa, etab. Kasu horretan, helburua substantzia horiek saihestea da.
5. Produktuaren kalitatearen ezaugarriak, erabili eta botatzeko produktuen edo produktu berrerabilgarrien erabilera-erosotasunari, xurgatze-gaitasunari, hezetasun-itzulerari edo erresistentziari erreferentzia egiten dieten arauak kontuan hartuta.
6. Enbalajeak kudeatzea, ahalik eta inpaktu txikiena eragiteko.

#### **Zer ekintza jarri behar dira martxan material xurgatzaileei loturiko ingurumen-inpaktuak gutxitzeko?**

- Erabili eta botatzeko produktuak nahiz produktu berrerabilgarriak erosteko gero eta ingurumen-irizpide zorrotzagoei jarraitzea, eta
- Ahal den aplikazioetan, gero eta produktu berrerabilgarri gehiago erabiltzea.
- Egoera bakoitzean egokiena den osasun-material xurgatzailea aukeratzea.

### Zenbait kontzeptu nagusi

- Material berrerabilgarrien garbitze-prozesuaren (garraiatu, garbitu, lehortu eta berrerabiltzeko entregatzea) inpaktuak gutxitzea.
- Sortutako hondakinak behar bezala kudeatzea.

### Arlo horri lotutako ingurumen-ziurtagiriak: zer ziurtagiri daude eta zer bermatzen dute?

- Material xurgatzaileetarako **etiketa ekologiko ofizialak**: estaltzen duten produktu-familiari buruzkoak, ziurtatzen duten produktu-motari buruzkoak (erabili eta botatzekoak eta berrerabilgarriak) edo ingurumen-eskakizunen mailari buruzkoak.

Etiketa	Logo ofiziala	Produktuak eta irizpide nagusiak
<b>Produktu BERRERABILGARRIETARAKO</b>		
Green Mark (Taiwan)		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Haurrentzako pixoihalak</li> <li>• Gutxieneko iraunkortasuna: 150 erabilaldi</li> <li>• Gutxieneko kotoi edukia, % 50, distira-emaile optikorik eta formaldehidorik gabe</li> </ul>
Eco Mark (Japonia)		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Haurrentzako pixoihalak</li> <li>• Ez du zehazten gutxieneko iraunkortasunbermerik ez du ezartzen</li> <li>• Gutxieneko kotoi edukia, % 50, distira-emaile optikorik eta formaldehidorik gabe, eta veste irizpideren bat gehiago substantzi kimikoen edukari buruz.</li> </ul>
Environmental choice (Kanada)		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Haurrentzako pixoihalak</li> <li>• 75 erabilaldiko iraunkortasuna eskatzen du soilik</li> </ul>

Etiketa	Logo ofiziala	Produktuak eta irizpide nagusiak
<b>ERABILI ETA BOTATZEKO produktuetarako</b>		
Good environmental choice (Australia)		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Haurrentzako pixoihalak, inkontinentziarako produktuak eta konpresak</li> <li>• Zenbait irizpide ezartzen ditu zelulosari (ECF edo TCF, distira-emaile optikorik gabe eta abar), polimero edo plastikoei (PVC eta phtalatorik gabe, eta material berriztagarriaren gutxieneko kopurua...), kotoiari (nekazaritza ekologikokoa eta ECF edo TCF), gaitasun xurgatzaile handikoei eta beste material batzuei buruz. Lurrin edo beste substantzia kimiko arriskutsurik ez izatea ere zehazten du oro har.</li> </ul>

### Zenbait kontzeptu nagusi

<p>Beltxarga Zuria (Eskandinavia)</p>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Haurrentzako pixoihalak, inkontinentziako produktuak, konpresak eta tanpoiak, ohe-estalkiak eta abar</li> <li>• Ekoetiketa australiarraren antzeko irizpideak, baina zorrotzagoak Beste alde bat da ekoetiketa honek zuntz birziklatuak baztertzeko dituela produktu hauetan, eta australiarrak berriz, ez.</li> </ul>
---------------------------------------	--	---

- **Beste ziurtagiri batzuk:** Fabrikatzaileek erabiltzen dituzten materialen zenbait ezaugarri egiaztatzeko baino ez dira erabigarriak, eta ez dira oso erabilgarriak izango ziurtagiri hauek dituzten azken produktuak aurkitzeko

Etiketa	Logotipo	Produktu- edo material-mota
Oeko-tex 100		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ehunezko produktuarentarako, ehunduak izan ala ez (kotoia, poliesterra, poliamidak, biskosa eta abar)</li> </ul>
Nekazaritza ekologikokoak		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Xurgatzaile berrerabilgarrien kotoi, banbu edo kalamuzko zuntzetarako</li> </ul>
FSC edo PEFC		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zelulosarako eta/edo biskosa edo rayonerako</li> </ul>



## KONTRATAZIOK HONDAKINEN KUDEAKETARA BITARTEKO BIDEA

Ingurunea errespetatzen duen material xurgatzailea erosteko prozesuan, zenbait unetan aukera dugu erabaki edo eragiteko. Zer unetan? Nola izan iraunkor?

### ZEIN DIRA GURE BENETAKO BEHARRAK?

#### 1. Urratsa. Beharrak

Material xurgatzaile berria erosi aurretik, gure benetako beharrak aztertzea komeni da:

- Zein produktu behar ditugu? Zenbat? Erantzun egokia lortzeko, erosten diren produktu xurgatzaileak, urteko erosketa bolumena eta kostu unitarioa, guztizko kostua eta erabiltzaile bakoitzeko kostua erregistro xehatu batean jasotzea komeni da. Horrez gain, sistema horrek aukera emango digu sortzen den hondakin-kopurua zenbartzeko eta produktu berrerabilgarriak txertatzea egokia ote den baloratzeko.
- Osasun-material xurgatzailearen kontsumoa gutxitzeko neurriak har daitezke? Hartu beharreko neurriek bi noranzko dituzte: 1) horrelako produktuak behar dituzten aplikazio espezifikoetan soilik erabiltzea, eta 2) produktu berrerabilgarriak erabiltzea.

Erantzunen bidez, material xurgatzailea erosteko dugun benetako beharra hauteman, zenbatu eta doitu dezakegu.

### ZEIN MATERIAL XURGATZAILE EROSI BEHAR DUGU?

#### 2. Urratsa. Material xurgatzailea erostea

Material xurgatzaileen eta material-mota horren behar zehatzak ezagutu ondoren, ezinbestekoa da erosketan txertatuko ditugun ingurumen-irizpideak zehaztea.

- Modurik errazena lehen zehaztutako etiketa ekologiko ofizialen bat duten produktuak erostea da. Hala ere, nabarmentzekoa da gaur egun ez daudela etiketa horien bidez ziurtatutako produktu asko.
- Erabili eta botatzeko materialak erosteko beste aukera bat informazio nagusia eskatzea da, eta irizpide hauek betetzen dituzten produktuak erostea:
  - ⇒ Zelulosa baso-ustiapen iraunkorretako zur eta/edo zur birziklatutik etortzea.
  - ⇒ Zuritu gabea edo klororik gabe (TCF) zuritua izatea.
  - ⇒ Gehitutako lurrin, larruzalarentzako lozio edo usain-kengarririk ez izatea (inkontinentziako produktu batzuetan izan ezik)
  - ⇒ Kanpo-geruza iragazgaitzak plastiko halogenaturik ez izatea.

## 2. Urratsa. Material xurgatzailea erostea

- Material berrerabilgarriak erosteko, informazioa eskatzea eta irizpide hauek betetzen dituzten produktuak erostea:
  - ⇒ Nekazaritza ekologikotik datorren kotoia edo zuntz begetala izatea.
  - ⇒ Zuritu gabea edo klororik gabe (TCF) zuritua izatea.
  - ⇒ Plastikozko estalkia plastiko halogenaturik gabea izatea.
  - ⇒ Iraunkortasun handiagokoa izatea.

Administrazioak prozedura ireki edo negoziatu baten bidez erosi behar izanez gero osasun-material xurgatzailea, Ihobek argitaratutako Kontratazio eta Erosketa Publiko Berdearen Gidaliburuan aurkituko dituzu erabili eta botatzeko produktuentzako eta produktu berrerabilgarrientzako orrian sartu beharreko irizpideak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeak ezarritakoa betetzen dutenak (eskakizun-maila bakarra egongo da produktu-mota bakoitzarentzat).

## AZKENEKO URRATSA: HONDAKINAK NOLA KUDEATU?

### 3. unea. Hondakinen kudeaketa

Sortutako hondakinak behar bezala kudeatzeko, une honetan garrantzitsua da erabili eta botatzeko material xurgatzaileen eta material xurgatzaile berrerabilgarrien arteko bereizketa egitea.

- Erabili eta botatzeko material xurgatzaileak:
  - ⇒ Konposizioa dela eta, gaur egun ez dago produktu horiek berreskuratzeko teknikoki eta ekonomikoki bideragarria den prozesurik. Irtenbide bakarra botatzeko material gisa kudeatzea da.
  - ⇒ Hondakin sanitarioak hiru kategoriatan sailkatzen dira, indarrean dagoen legeriaren arabera:
    - I taldea: Hiri- edo udal-hondakinak.
    - II taldea: Hondakin sanitario espezifikokoak.
    - III. taldea. Hondakin kimikoak eta arau bereziak dituzten beste hondakin batzuk.

Taldearen arabera, produktuak kudeatzeko berariazko eskakizunak erabiliko dira zentroetan (zentro barruko kudeaketa) eta zentrotik kanpo (zentro kanpoko kudeaketa).

- ⇒ Osasunaren alorrekoak ez diren zentroetan sortzen diren hondakinak (esaterako, haurtzaindegi edo zaharren egoitzetan) hiri-hondakinen parekoak izaten dira, eta,

beraz, ez da eskakizun berezirik bete behar produktu horiek kudeatzeko. Hala ere, zenbait zentrotan prebentzio-higienarako neurriak hartzen dituzte.

- Material xurgatzaile berrerabilgarriak:
  - ⇒ Material berrerabilgarriak erabiliz gero, askoz hondakin gutxiago sortzen dira.
  - ⇒ Hainbatetan garbitu ondoren xurgatze-gaitasuna galtzen dute, eta balio-bizitzaren amaierara iristen dira; une horretan aukera hauek daude:
    - Garbitu ondoren, erabiltzen ez diren ehunezko produktuak horiek berreskuratzeko zentroetara eramatea, beste erabilera bat emateko (esaterako, betegarriak, garbiketako zatarrak eta abar).
    - Baztertzea, eta, beraz, hiri-hondakinen antzera kudeatzea.



## INFORMAZIO GEHIAGO...

### Lotura interesgarriak

- [www.ihobe.eu](http://www.ihobe.eu) webgunean egin dezakezu kontsulta, non erabilgarri baitituzu **Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Eskuliburua** (ekipo informatikoei buruzkoa da atal berezi bat) eta **Produktuaren Ingurumen Etiketen Eskuliburua**.
- Halaber, irizpide horiek betetzen dituzten produktuei eta hornitzaileei buruzko informazioa du lhobek, ezarritako irizpideak betetzen dituzten produktu eta hornitzaile berri guztiei irekita dagoena.
- Bestalde, zuzeneko kontsultaren bat egin nahi izanez gero, Ihobe Line telefonora deitu dezakezu: 900 150 864.